

## MATERIALISMO HISTERIKOA

# Palestina



UXUE APAOLAZA LARREA

Zutabe bat gehiago idaztera eseri, eta Palestina deika sumatzen duzu, baina ezin jakin ondo zer egin. Zerbait esan behar da, nork nahi du isildu. Nori baina. Argiako zer irakurlek ez daki han gertatzen ari dena? Argiako irakurleak badaki gertatzen ari dena, gertatzen ari zena, amorratu da, badaki orain Palestinari estatu bat edukitzeko eskubidea onartzea ez dela nahikoa, ia txantxa bat dela: zeren estatu, egongo da berreraikitzeke zerbait (kontraturen bat) han? Zer orduan dena baldin badakigu? Berriro zutabe zigortzailerren bat ezer egiten ez dugula salatzeke, egin ahal bagenu bezala. Edo horixe bestela, zutabe fatalista bat ezin dugula ezer egin esateke. Esateke, gainera, kapitalismoa estrabagante dabilela mundu osoan, nahi duena eginez, eskuin muturrez mozorrotuta, Mileiz mozorrotuta atzean Macri egon arren, Meloniz, Trumpez (eta horrela Bidenek ez dirudi ultrakapitalista gerrazale bat). Abascalez, eta horrela Pedro Sánchezek ezkertiarra dirudi.

Baina gogoeta horiek guztiak berrogeita piku urteekin egiten ari naiz. Esaldiak “gaur egungo gazteak” esanez hasten dituzten belaunaldikoa naiz. Fatalismora apuntatu, eta txakrak irekitzen ari diren belaunaldikoa. Ez naiz aditua soziologian, eta ez naiz gaztea. Baina beharbada kapitalismoa pasatzen ari da, geure burua ezin jasateraino. Eta gazteek uste dute zerbait alda dezaketela, eta frogatzea erabaki dutela dirudi, eta, agian, orain ez dago indarririk Palestinaren alde asko egiteke. Baina elkartzearen elkartzeaz, aurre egitearen aurre egiteaz, agian, “gaur egungo gazteek”, eguna mugikorrari begira pasatzen omen duten milenial horiek, gorputza jartzen ari direnek sorpresaren bat emango digute. Palestinako sarraskiak balio dezala, gutxienez, horretarako. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



## Sexu erasoak

Irakasle baten sexu abusuak salatu dituzte Getxoko Europa ikastetxeke lau familiak. Segurtasun Sailak ikerketa abiatu du. Eskolatik adierazi dute irakaslea “zentrotik apartatu” dutela eta “erabateko arduraz” jokatu dutela, baina familiek gertatua “estali” nahi izana leporatu diote.

## Ekonomia

Trantsizio ekologikoaren alde egiteko omen ziren Next Generation EU funtsak ez dute helburua betetzen eta Euskal Herriko enpresa transnazional boteretsuenak ari dira funtsak jasotzen, Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiak osaturiko txosten mamitsuaren arabera.

## Zezenketak

“Zezenketarik gabeko sanferminetarako trantsizioa errazteke” eskatu die Iruñea Antitaurina kolektiboak Peñen Federazioari. “Festa giroan zezenen presentzia egon behar den ala ez aztertzeke” garaia iritsi dela uste du kolektiboak, eta bide horretan ezinbestekoa dela peñen inplikazioa.